

## BIH: OHIKO GALDERAK - GAI OROKORRAK -

### AURKIBIDEA

|                                                                                                                                                                                                                                                         |    |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. GAI OROKORRAK .....                                                                                                                                                                                                                                  | 2  |
| 1.1. Zer da da Berehalako Informazio Hornidura (BIH)? .....                                                                                                                                                                                             | 2  |
| 1.2. BIHak BEZaren subjektu pasibo guztiei eragiten die? .....                                                                                                                                                                                          | 2  |
| 1.3. Nola egin behar da BIHa aukeratzeko borondatezko eran? .....                                                                                                                                                                                       | 2  |
| 1.4. BIH behin aukeratuta, nahitaezkoa al da gutxieneko epe batez aplikatzea? .....                                                                                                                                                                     | 3  |
| 1.5. BIH aukeratu ondoren, ba al dago hari uko egitea? .....                                                                                                                                                                                            | 3  |
| 1.6. Ba al dago kasuren bat subjektu pasiboa BIHtik kanporatzeko edo sistema horretan ez jarraitzeko? .....                                                                                                                                             | 3  |
| 1.7. Zeintzuk dira BIHren funtzionamendurako oinarrizko lerroak? .....                                                                                                                                                                                  | 3  |
| 1.8. BEZaren erregistro-liburuetan gaur egun dagoen informazio bera eman behar al da? .....                                                                                                                                                             | 4  |
| 1.9. Gipuzkoako Foru Aldundira bidali behar al dira fakturak? .....                                                                                                                                                                                     | 4  |
| 1.10. Noiz bidali behar dira fakturazio-erregistroak Gipuzkoako Foru Aldundira? .....                                                                                                                                                                   | 4  |
| 1.11. Zer abantaila ditu BIHan sartutako zergadunak? .....                                                                                                                                                                                              | 7  |
| 1.12. BIH aplikatzen duen zergadun batek bere bezeroaren edo hirugarren baten bidez fakturatzeko erabaki badu, Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi behar al dio? .....                                                                                | 8  |
| 1.13. Urtarrilaren 1aren ondoren BIH aplikatzen duen zergapeko batek aurkeztu behar al du ekitaldi horri dagokion 347 eredu? .....                                                                                                                      | 8  |
| 1.14. BIHra behartuta daudenekin zein kasutan aurkeztu behar dituzte fakturazio-erregistroak Gipuzkoako Foru Aldundian? .....                                                                                                                           | 8  |
| 1.15. Nola eragiten die BIHak eragiketa bolumenaren arabera tributatzeko duten enpresei? .....                                                                                                                                                          | 9  |
| 1.16. BIH ekitaldi jakin bateko apiril, uztail edo urritik aurrera aplikatzen duen hileko itzulketen erregistroko zergapeko batek BIHren bidez bidali behar al du ekitaldi horretan BIHan sartu aurretik egindako eragiketei buruzko informazioa? ..... | 9  |
| 1.17. Non dago araututa BIH? .....                                                                                                                                                                                                                      | 9  |
| 1.18. TicketBAI sistemak nola eragiten die BIH aplikatzen duten zergapekoei? .....                                                                                                                                                                      | 10 |

# BIH: OHIKO GALDERAK

## 1. GAI OROKORRAK

### 1.1. Zer da da Berehalako Informazio Hornidura (BIH)?

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak eramateko sistema bat da. Sistema hori **GFaren egoitza elektronikoaren** bidez eramaten da, fakturazio-erregistroak ia berehala emanez.

Hala, BIHrekin, fakturak erregistratu edo kontabilizatzeko unea haiekin lotuta dagoen eragiketa ekonomikoa egiteko unera hurbiltzen da.

### 1.2. BIHak BEZaren subjektu pasibo guztiei eragiten die?

BEZa hilero likidatu behar duten subjektu pasibo hauek daude BIH sistema aplikatzera behartuta:

- BEZaren HIEan izena emandakoak (Hileko Itzulketen Erregistroan)
- Enpresa handiak (6.010.121,04 €-tik gorako fakturazioa dutenak)
- BEZaren taldeak (Entitate taldeen araubide berezian daudenak)
- Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako gasolinen, gasolioen edo bioerregaien gordailu fiskalen titularrak, bai eta produktu horiek gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten enpresaburuak edo profesionalak ere (2025-01-01etik).

BIHa gainerako subjektu pasiboek ere aplika dakieke, beren borondatez hura aplikatzea aukeratzen badute.

### 1.3. Nola egin behar da BIHa aukeratzeko borondatezko eran?

Edozein unetan hautatuta zentsu-aitorpenean (036 ereduaren 280. laukia), eta aukera hori adierazi den likidazio-aldia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera sartuta geratuko da.

*Adibidea: BIH hautatzen duen enpresa bat, 036 ereduaren 2025eko apirilaren 10ean aurkeztuta, sisteman sartuko da 2025eko uztailaren 1etik aurrera.*

BIH aukeratzen duten subjektu pasiboek bere hiruhileko likidazio-aldiari eutsiko diote.

#### **1.4. BIH behin aukeratuta, nahitaezkoa al da gutxieneko epe batez aplikatzea?**

Bai. Aukeratu den urte natural osorako aplikatu behar da.

#### **1.5. BIH aukeratu ondoren, ba al dago hari uko egitea?**

BIH aukeratzeko dutenek, gutxienez aukera egiten duten urte natural horretan aurkeztu behar dituzte fakturazio erregistroak modu elektronikoan.

Aurrekoa betez gero, zentsu aitorpenean posible da sistemari uko egitea ondorioak sortu behar dituen urte naturala hasi aurreko azaroan.

#### **1.6. Ba al dago kasuren bat subjektu pasiboa BIHtik kanporatzeko edo sistema horretan ez jarraitzeko?**

Enpresaburuak edo profesionalak hileko likidazio-aldiarekin jarraitzen ez badu behintzat:

- Hileko itzulketen erregistrotik kanpo geratzeak berekin dakar BIHa aplikatzeko obligaziotik salbuestea salbuespenari buruzko erabakia jakinarazi den likidazio-aldiko lehen egunetik aurrera.
- Entitate taldeen araubide berezian ez jarraitzeak berekin dakar BIHan ez jarraitzea hura uzten den unetik aurrera.

BIHtik kanpo geratzen diren subjektu pasiboek 347 eredua aurkeztu behar dute.

#### **1.7. Zeintzuk dira BIHren funtzionamendurako oinarrizko lerroak?**

BIHri atxikitako subjektu pasiboek erregistro-liburu hauek eraman behar dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, fakturazio-erregistroen hornidura elektronikoaren bidez:

- Egindako Fakturen erregistro liburua.
- Jasotako Fakturen erregistro liburua.
- Inbertsio Ondasunen erregistro liburua.
- Batasun Barruko hainbat Eragiketaren erregistro liburua.

Horretarako, fakturazioari buruzko xehetasunak bidali behar dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta informazio horrekin ia denbora errealean osatuz joango dira erregistro-liburuak.

Informazio hori bide elektronikoz bidaliko da, eta zehazki, XML mezuen elkartrukean oinarritutako web zerbitzuak erabiliz. Erregistroen igorpen horretan, goiburu komun batek adieraziko du zein den erregistro liburu bakoitzaren titularra eta zer ekitaldi eta epealditan erregistratu diren eragiketak. Goiburu horren ondoren, fakturen edukia etorriko da.

Era berean, fakturazio-erregistroen hornidura elektronikoa web-formulario baten bidez egingo da, eragiketa gutxi egiten dituzten subjektu pasiboak direnean edo fakturen erregistro zehatzak modu isolatuan bidali nahi direnean.

Bi kasuetan, informazio hori azaroaren 7ko 467/2017 Foru Aginduari bidez onartutako erregistro-eremuen arabera emango da, GFaren egoitza elektronikoen bidez BEZaren erregistro-liburuak eramateko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dituenak.

#### **1.8. BEZaren erregistro-liburuetan gaur egun dagoen informazio bera eman behar al da?**

Ez. Informazio jakin bat bakarrik bidali behar da GFaren egoitza elektronikora, eta informazio hori toki hauetan dago gaur:

- BEZaren Erregistro Liburuetan
- Fakturretan
- 347 ereduetan

#### **1.9. Gipuzkoako Foru Aldundira bidali behar al dira fakturak?**

Ez. Bidali behar dena azaroaren 7ko 467/2017 Foru Aginduan zehazten diren fakturazio-erregistroen eremuak dira, zerga-betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua eta fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua aldatzen dituen ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuan aipatzen den informazioari dagokionez.

#### **1.10. Noiz bidali behar dira fakturazio-erregistroak Gipuzkoako Foru Aldundira?**

##### **A) Jaulkitako fakturak**

Egutegiko lau eguneko epean, faktura egiten denetik, honako kasu honetan izan ezik: faktura jasotzaileak edo hirugarren batek egiten badu, epealdia egutegiko zortzi egunekoa izango da. (\*)

Nolanahi ere, hornidura erregistratu beharreko eragiketari dagokion zergaren sortzapena gertatu eta hurrengo hileko 16. eguna (\*) baino lehen eman beharko da informazio hori. Dena den, zergari lotu gabeko eragiketen kasuan, haiengatik faktura egin beharra bazegoen, azken epe hori zehaztuko da eragiketaren data erreferentzia hartuta. Epemuga hori bat dator faktura egiteko epe-amaierarekin, 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Fakturazio-Erregelamenduaren 11. artikulua arabera; beraz, enpresaburu batek faktura sortu eta hurrengo hilaren 15ean egiten badu, egun horretan bertan bidali beharko ditu fakturazio-erregistroak BIHren bidez (Europako Erkidegoaren barruko bidalketak izan ezean).

*1. adibidea: A enpresaburu batek zerbitzu bat ematen dio beste enpresaburu bati 2025eko abuztuaren 1ean, eta dagokion faktura egun horretan bertan egiten du. Abuztuaren 7an amaituko da faktura hau BIHren bidez erregistratzeko epea.*

*2. adibidea: A enpresaburu batek zerbitzu bat ematen dio beste enpresaburu bati 2025eko irailaren 3an, eta dagokion faktura 2025eko urriaren 10ean egiten du (emateko epea urriaren 15ean amaitzen da). Faktura hori BIHren bidez erregistratzeko epea urriaren 15ean amaituko da (epemuga indarrean dago).*

*3. adibidea: enpresaburu batek Europar Batasunaren barruko entrega bat egiten dio bezero frantses bati. Ondasunen garraioa 2025eko ekainaren 19an hasi zen, eta faktura 2025eko uztailaren 15ean egin zen (faktura jaulkitzeko azken eguna, 8/2013 Foru Dekretuak onartutako Fakturazio-Erregelamenduaren 11.2 artikulua arabera, eta horixe da eragiketaren sortzapena gertatu zen data). Faktura hori BIHren bidez erregistratzeko epea uztailaren 21ean amaituko da.*

## **B) Jasotako fakturak**

Egutegiko lau eguneko epean (\*), fakturaren kontabilitate-erregistroa egiten den egunetik aurrera, eta, nolanahi ere, dagozkion eragiketak sartu diren likidazio-aldiaren hurrengo hilaren 16a (\*) baino lehen (jasandako BEZa kentzen den aldia).

Ulertzen da fakturaren kontabilitate-erregistroa kontabilitate-sisteman sarrera ematen zaion datan gertatzen dela, kontabilitate-idazpenean jarritako data edozein izanik ere.

*4. adibidea: 2025eko uztailaren 9an faktura bat jasotzen duen enpresaburu batek uztailleko autolikidazioan jasandako kuota kontsignatzea eta kentzea erabaki du, eta kontabilitate-erregistroa egin du, sisteman abuztuaren 13ko sarrera-datarekin. Faktura hori BIHren bidez erregistratzeko epea 2025eko abuztuaren 18an amaituko da (epemuga indarrean dago, eta abuztuaren 15a ostirala da, jaiegun nazionala).*

5. adibidea: faktura bat 2025eko abuztuaren 9an jaso zuen enpresaburu batek kontabilitate-erregistroa egin zuen, eta urriaren 13an sartu zen sisteman. Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko amaituko da:

- a) Urriaren 15ean, faktura iraileko autolikidazioan kentzen badu (epemuga indarrean dago).
- b) urriaren 17an, faktura urriko autolikidazioan kentzen badu.

Aurreko adibideen arabera, faktura bat autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik jaso eta jasotako fakturen erregistro-liburuan idatzi ondoren kendu ahal izango da. Hala ere, kontuan hartu beharko da BIHren bidez erregistroak bidaltzeko azken eguna kenkaria egin eta hurrengo hilaren 15a (\*) izango dela.

6. adibidea: enpresari batek jasotako faktura bat erregistratu du kontabilitatean, baina ez du hura jaso izanaren dataren berririk. Sisteman 2025eko urriaren 13an sartu zen. Faktura hori BIHren bidez erregistratzeko epea urriaren 17an amaituko da. Faktura urriari dagokion likidazio-alditik aurrera kendu ahal izango da.

Inportazio-eragiketen kasuan, egutegiko lau egunak aduanaren BEZaren likidazioa jasotzen duen dokumentuaren kontabilitate-erregistroa egiten denetik zenbatu beharko dira, eta, nolana ere, aitorpenari dagokion aldia amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen (jasandako BEZa kentzen den aldia).

7. adibidea: enpresaburu batek modu askean izapidetutako salgaiak inportatzen ditu 2025eko urriaren 25ean, eta egun horretan bertan administrazio dokumentu bakarra onartu eta aduanak BEZa likidatu zuen. Enpresaburuak urriko autolikidazioan jasandako kuota kontsignatzea eta kentzea erabaki zuen, eta 2025eko azaroaren 10ean erregistratu zen kontabilitatean. Administrazio dokumentu bakarraren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea azaroaren 14an amaituko da.

### **C) Europar Erkidegoaren barruko beste herrialde batzuetan egindako eragiketa jakin batzuk**

Egutegiko lau eguneko epean, ondasunen igorpena edo garraioa hasten denetik aurrera, edo, hala badagokio, ondasunak jasotzen direnetik aurrera.

### **D) Inbertsio ondasunen informazioa**

Urteko azken likidazio-aldia aurkezteko epearen barruan (urtarrilaren 30era arte).

### **E) Faktura zuzentzaileak**

Faktura egiten den egunetik edo kontabilitate-erregistroa egiten denetik egutegiko lau eguneko epean, hurrenez hurren.

Zuzenketak hasiera batean kendutako kuoten zenbatekoa handitzea badakar, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 114.Bi.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, epea jasotako fakturen epe orokorra izango da.

**AINTZAT HARTZEKO EPEALDIK, BIH SISTEMARI HELTZEKO AUKERA URTARRILAREN 1a EZ DEN DATA BATEAN EGITEN DENEAN:** Urtarrilaren 1etik BIHn sartu arteko aldiari dagokion informazioa bidaltzeko epea sartze-data horretatik ekitaldia amaitu artekoa izango da.

**(\*) EPEEN ZENBAKETA:** Kontuan izan behar da aurreko ataletan aipatutako lau edo zortzi egun naturaleko epea zenbatzean, kanpoan utziko direla larunbatak, igandeak eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan jaiegun izendatutakoak.

Hala, hurrengo hilaren hamabosgarren eguna, hau da, epemuga, larunbata, igandea edo jaieguna bada, epemuga hurrengo egun balioduna izango da.

#### **1.11. Zer abantaila ditu BIHan sartutako zergadunak?**

Abantaila hauek ditu zergadunarentzat BIH sistemak:

- Betebehar formalak murrizten ditu, 347 ereduak aurkezteko obligazioa desagertzen delako.
- Datu fiskalak kontsultatzeko aukera, bai enpresek berek aitortutakoak bai BIHra bildutako bezero edo hornitzaileek egotzitakoak.

Egoitza Elektronikoa erregistro-liburu bat izango du, "deklaratua" eta "kontrastatua", sistema honetako taldekoak diren hirugarrenek emandako kontraste-informazioarekin.

Era berean, BIH aplikatzen duten bezeroen eta/edo hornitzaileen erregistro-liburuetan jasotako fakturen informazioa eskuratu ahal izango da.

Datu fiskal horiek aitorpena egiten laguntzeko tresna erabilgarria dira, akatsak murrizten dituzte eta sinplifikazioa eta segurtasun juridiko handiagoa ahalbidetzen dituzte.

- Itzulketak egiteko epeak murriztea, Gipuzkoako Foru Aldundiak informazioa ia denbora errealean eta eragiketei buruzko informazio gehiago baitu.
- Egiatzatzeko epeak murriztea, aurreko arrazoi berberengatik.

- Informazio errekerimendu gutxiago egitea dakar, gaurko errekerimendu askoren xedea izaten baita fakturak edo fakturretako datuak eskatzea eragiketa jakin batzuk egiaztatzeko.

#### **1.12. BIH aplikatzen duen zergadun batek bere bezeroaren edo hirugarren baten bidez fakturatzea erabaki badu, Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi behar al dio?**

Bai. 036 ereduaren bidez jakinarazi beharko duzu, 283 laukitxo (Aukera) markatuz, eta noiztik aurrera egiten duen adieraziz (aldez aurretik 8 laukitxo markatu behar du eredia aurkezteko arrazoia adierazteko: 4. atala, Eskabide Espezifikoak, aldatzea).

#### **1.13. Urtarrilaren 1aren ondoren BIH aplikatzen duen zergapeko batek aurkeztu behar al du ekitaldi horri dagokion 347 eredia?**

Ez

#### **1.14. BIHra behartuta daudenek zein kasutan aurkeztu behar dituzte fakturazio-erregistroak Gipuzkoako Foru Aldundian?**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuskatzeko eskumena duten zergadunek aurkeztu beharko dituzte fakturazio-erregistroak Zerga Administrazio honetan.

Ikuskatzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, baldin eta:

- Subjektu pasiboak zerga-egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan badu eta aurreko urtean egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi euro edo txikiagoa bada.
- Subjektu pasiboak Gipuzkoako Lurralde Historikoan badu zerga-egoitza eta aurreko urtean 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan badu, betiere Lurralde Erkidean egindako eragiketen ehunekoa % 75etik beherakoa bada eta eragiketak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten baditu.
- Subjektu pasiboak Araban edo Bizkaian badu egoitza fiskala eta aurreko urtean 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan badu, betiere eragiketen % 100 Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten badu.
- Subjektu pasiboak egoitza fiskala lurralde erkidean badu eta aurreko urtean 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan badu, betiere Euskadin egindako eragiketen ehunekoa % 75ekoa edo handiagoa bada (edo % 100, entitate taldeen erregistro bereziari atxikitako erakundeen kasuan) eta Euskadiko eragiketa gehienak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten baditu.

### **1.15. Nola eragiten die BIHak eragiketa bolumenaren arabera tributatzan duten enpresei?**

Jarduten duten zerga administrazioetan jarraitu behar dute aurkezten BEZaren aitorpenak, bertako aitorpen ereduak eta epeen arabera.

Dena den, enpresa BEZaren ondorioetarako ikuskatzen duen zerga administrazioari bakarrik eman behar diote BIHko informazioa, zerga administrazio horren araudiari jarraituz.

### **1.16. BIH ekitaldi jakin bateko apiril, uztail edo urritik aurrera aplikatzen duen hileko itzulketen erregistroko zergapeko batek BIHren bidez bidali behar al du ekitaldi horretan BIHan sartu aurretik egindako eragiketei buruzko informazioa?**

Eskatutako BEZaren itzulketak gestionatzeko, beharrezkoa izango da informazioa bidaltzea, hurrenez hurren, urtariletik martxora, urtariletik ekainera eta urtariletik irailera bitarteko fakturei buruz. Informazioa bidaltzeko epea ekitaldiko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Faktura horiek "Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa" eremuan erregistratuko dira, balio moduan "Aurreko lehen ekitaldia" adierazita (16 gakoa egindako fakturretan, eta 14 gakoa jasotako fakturretan).

Informazioa emateko betebeharra 036 ereduak aurkezten denetik aurrera hasiko da. Eredu hori aurkezten den hilabeteko fakturak zentsu ereduak aurkeztu aurrekoak izanez gero, ondorengo hilaren 16aren aurretik informatu beharko dira.

### **1.17. Non dago araututa BIH?**

Gipuzkoako Lurralde Historikoan honako araudi hau aplikatu behar da:

- 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 26koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena.
- BEZaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretua
- Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia.
- Fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

- 467/2017 Foru Agindua, azaroaren 7koa, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen.
- 592/2017 Foru Agindua, abenduaren 29koa, 001-P edo 001-L ordezkazarik ez duten fakturazio-erregistroei buruzko informazioa elektronikoki emateko gizarte-lankidetzaren baldintzak onartzen dituen.

#### **1.18. TicketBAI sistemak nola eragiten die BIH aplikatzen duten zergapekoei?**

TicketBAI betebeharrak ez du salbuesten BIH betetzetik. Hala ere, TicketBAIk bidalitako datuek BIHan jaulkitako fakturen liburuarekin soilik bat datozen eremu berberak betetzen dituztela ulertuko da. Jaulkitako fakturen gainerako datuak bete ez direnean, BIH betetzeko ezarritako epeetan bete beharko dira, gaitutako web-zerbitzuen bidez. Gainera, gainerako liburuetako informazioa bidaltzen jarraitu beharko dute.

*Ikusi BIH-TicketBAI ohiko galderak*